

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2019an Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdiko eskabideak ebaztea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2019ko azaroaren 14an emandako ebazpena, zeinaren bidez 2019an Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa ebatzi baitzuen. Hauxe da ebazpenaren edukia:

“2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorrak (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zk.).

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoaren udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa — 2019ko maiatzaren 15eko ALHAO, 56. zk.—, laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 90.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2019ko ekitaldira luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.67 partidaren kontura.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko ekainaren 28an amaitu zelarik, udalaren Enpresa Zerbitzuko teknikariek, 2019ko urriaren 14ko idazkia tarteko, epearen barruan berrogei (40) eskabide aurkeztu zirela jakinarazi zuten, eta horietatik batek (1) borondatezko uko egitea aurkeztu zuela eta hamasei (16) eskabidek ez zituztela baldintzak betetzen. Hortaz, gainerakoak barematu ziren.

Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2019ko azaroaren 13an egindako bilkuran aztertu eta eztabaidatu ziren eskabideak, eta guztiek deialdiaren betekizunak betetzen zituztela eta baremazioa egiaztatu zirelarik, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari. Ebazpenean hauxe proposatzen zen: hogeita hiru (23) eskabideri eskatutako laguntzak eta dagozkion diru-hornidurak ematea, eta hamasei (16) eskabideri deialdiko baldintzak ez betetzeagatik laguntzak ukatzea.

Deialdi honetan ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorren Saileko (zein 2019ko udal hauteskundearen ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila deitzen baita) zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2019ko apirilaren 12ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau

ebatzi du

Lehena. Onartzea 72753493P IFZ duen enpresak 2019an Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntzei egindako borondatezko ukoa.

Bigarrena. Deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatu ondoren, Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko eskatutako laguntza ukatzea ondorengoei, adierazitako zio hauengatik:

Enpresa	Arrazoia
B01557388	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez.
B01568591	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez.
72753558G	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez.
B01565928	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10.oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
72840768K	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10.oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
J01571835	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10.oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
J01573922	3. oinarria: EJZ ren alta gabe. 10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
16256398K	10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
B01570126	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
72748917D	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
58026940X	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10.oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
B01577550	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10.oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
J01555879	3. oinarria: EJZren txikizkako merkataritza
15242011A	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez. 10.oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez.
18601077B	3. oinarria: EJZ ren alta gabe.
B01570357	3. oinarria: EJZ Gasteiztik kanpo
Guztira 16 eskabide ukatuta	

Hirugarrena. Deialdiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, eta deialdiaren 10. oinarrian ezarritako gutxieneko 50 puntuak gainditu dituztelarik, enpresak sortzeko 2019ko laguntza ematea jarraian adierazten diren eskatzaileei, dirulaguntza laguntza jaso dezaketen arloetan Gasteizen enpresa-proiektu bat abian jartzeko egin eta egiaztatu dituzten inbertsioengatik (deialdiaren zuzkidura ekonomikoa agortu arte):

Enpresa	Puntuazioa	Diru-laguntza jaso dezakeen inbertsioa	Ehunekoak	Diru-laguntza teorikoa	Prosatutako diru-laguntza
B01553619	90	15.771,42 euro	40,00	6.308,57 euro	6.308,57 euro
F01567965	88	21.813,10 euro	39,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
B01564426	85	23.350,00 euro	37,50	8.000,00 euro	8.000,00 euro
B01569003	74	14.166,64 euro	32,00	4.533,32 euro	4.533,32 euro
72723051H	72	7.644,98 euro	31,00	2.369,94 euro	2.369,94 euro
B01563139	72	26.720,26 euro	31,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
B01560259	72	20.000,00 euro	31,00	6.200,00 euro	6.200,00 euro
72731777G	70	43.803,24 euro	30,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
J01576420	70	5.476,23 euro	30,00	1.642,87 euro	1.642,87 euro
J01571454	69	7.624,45 euro	29,50	2.249,21 euro	2.249,21 euro
72832390S	68	6.593,09 euro	29,00	1.912,00 euro	1.912,00 euro
J01573252	68	6.008,90 euro	29,00	1.742,58 euro	1.742,58 euro
13301276P	65	5.320,49 euro	27,50	1.463,13 euro	1.463,13 euro
J01576339	65	20.902,04 euro	27,50	5.748,06 euro	5.748,06 euro
B01542026	62	16.949,73 euro	26,00	4.406,93 euro	4.406,93 euro
B01571934	62	7.260,00 euro	26,00	1.887,60 euro	1.887,60 euro
B01569409	60	49.334,49 euro	25,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
B01573872	60	10.679,15 euro	25,00	2.669,79 euro	2.669,79 euro
B01573013	60	7.503,06 euro	25,00	1.875,77 euro	1.875,77 euro
44685577G	58	5.716,44 euro	24,00	1.371,95 euro	1.371,95 euro
16236940K	56	6.371,47 euro	23,00	1.465,44 euro	1.465,44 euro
72743682H	55	5.128,76 euro	22,50	1.153,97 euro	1.153,97 euro
B01570944	50	5.166,09 euro	20,00	1.033,22 euro	998,87 euro
Guztira		339.304,03 euro		90.034,35 euro	90.000,00 euro

Laugarrena. Ondoren aipatzen den enpresak eskatutako laguntzaren zati bat ukatzea, betekizunak betetzen dituen arren ezin izan baitzaio guztiz erantzun, deialdiaren zuzkidura ekonomikoa agortu delako:

Enpresa	Dirulaguntza ukatua, deialdiko zuzkidura agortu izangagatik
B01570944	34,35 euro

Bosgarrena. Enpresak sortzen laguntzeko deialdiko dirulaguntzen kopurua (90.000,00 euro) jasota uztea, 2019ra luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.486.67 partidaren kontura, eta onuradunei ordaintzea, deialdiko 12. oinarrian ezarritakoari jarraiki.

Seigarrena. Udalaren Enpresak Sustatzeko Zerbitzuko teknikariak izendatzea diruz lagundutako enpresa-proiektu horien tutoretza eta jarraipenaren arduradun.

Zazpigarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Zortzigarrena. Erabaki hau udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea.

Bederatzigarrena. Ebazpena onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahaliko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahaliko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 19an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI